

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak gara. Startinnova sarearen bitartez gure etorkizuneko proiektu profesional posiblea aurkeztuko dizuegu.

Familia osotasunean kontutan izanik eta beraien beharrak hizpide hartuz, aisialdi, formakuntza zein aholkularitza zerbitzua eskaintzera gatoz. Uste dugu gaur eguneko hezkuntza sisteman aldaketa nabariak ematen ari direla.

Etxe gehienetan guraso biak lanean dihardute eta geroz eta denbora gutxiago konpartitzen da familia giroan.

Ziklo honetan ikusten ari garen bezala haur baten garapenerako ezinbestekoa da heziketa egoki bat jasotzea, hala nola; familiaren maitasuna, denbora, arreta...

Ezin dugu ahaztu gaurko haurrek biharko etorkizuna ekarriko dutela eta bide horretan gure aletxoak jarri nahi dugu.

Gure proiektua osotasunean azaldu aurretik, proiektu honen baitan parte hartzen dugun pertsonen aurkezpenak egingo dizkizuegu:



Paule: Betidanik gustatu izan zait haurren eta heziketaren mundua. Beraz, begirale titulua ateratzea erabaki nuen. Titulua atera ondoren, hainbat udalekuetan lanean aritu nintzen eta hortxe konturatu nintzen hau zela nire bokazioa, beraz haur hezkuntzako goi mailako zikloa egitea erabaki nuen. Esan beharra daukat txiki txikitatik parte hartu izan dudala aisialdi desberdinetan eta asko disfrutatzen nuela. Beraz aisialdi mundutik gertu egon nahi izan dut beti, era batera edo bestera. Bi urte daramatzat 2-3 urteko haurrei dantza saltsako klaseak ematen eta haurren zaintza lanetan

ere aritu izan naiz beste bi urtez. Lan munduan sartu nintzenean eta gertutik bizi izan nuenean konturatu nintzen gaur egungo haurrek, "familiak orokorrean" dituzten gabezia askotaz. Beraz proiektu honen helburua, nire aldetik behintzat, haur eta familia horien beharrianak betetzea izango litzateke beti ere gure filosofia eta bizitzeko era ardatz hartuta.



Mirari: Nahiz eta hasiera batean nire ikasketak nondik bideratu nahi nituen oso argi ez eduki, 5 hilabetez Eskozian bizi, bidaiatu eta esperientzia desberdinak bizi ondoren, Gizarte Integrazioko zikloa ikastea erabaki nuen. Hau bukatu nuenetik arlo sozialeko eremu desberdinetan esperientzia daukadala esan dezaket. Hainbat urte eman ditut autismoa duten adin desberdinetako pertsonekin lanean; bai asteburu zein opor garaietan aisialdiko ekintzetan hezitzaile bezala lan eginez baita astean zehar eguneko arreta zentroetan perfil desberdinetako pertsonekin lanean. Hori dela eta, lankide zein

erabiltzaileen taldeak uneoro desberdinak izatean, egoera desberdinetara egokitzeko gaitasuna dudala esan dezaket. Bitartean, 4 urtetan zehar 2 haurren zaintzaz arduratu izan naiz arratsaldeetan eta bi esperientzia hauek Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa ikastera bultzatu ninduten.

Gaur egun argi daukat hezkuntzarekin lotutako bide honetatik jarraitzea nahi dudala, lan esperientzia desberdinen eta etengabeko formakuntzaren bidez nire profila osatzen jarraituz.



Oihane: Betidanik izan dut hezkuntza eta hurrekiko zaletasun puntu bat, haurra nintzenik esan dezaket nire bokaziotzat nuela. Hala ere, batxilergoa amaitu eta beste bide bat hartu nuen eta Enpresa eta Administrazioen Zuzenbidean Lizentziatura egin eta ia hamar urtez administrazio lanetan aritu izan naiz.

Tartean ama izateko aukera izan dut eta honek nire ametsa egi bihurtzeko ateak zabaldu eta Haur Hezkuntzako zikloa egitera bultzatu nau. Era berean, etengabeko formakuntzarekin jarraitzea nahi dut, ikastaro, formakuntza, tailer... desberdinetan parte hartzen. Jaio eta lehenengo urteak bizitzaren urterik garrantzitsuenak direla urte dut, bai pertsonaren garapenerako eta baita bizitza ulertzeko ere.

Hezkuntza bizitzarako ezinbesteko tresna dela deritzot, eta beraz hezkuntza on batekin mundu mailako gatazka asko ekidin zitezkeela ere uste dut.



Mariane: Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa egitea erabaki nuen betidanik hurrekin egotea gustatu zaidalako. Zikloa aurrera zihoan heinean hezitzaileen mundua gero eta gehiago gustatzen zitzaidala konturatu nintzen, aurretik ez nekizkien kontzeptu asko barneratuz.

Bitartean, begirale ikastaroa egiteko aukera izan nuen eta horretan aritu nintzen urtebetez. Praktikak aniztasun funtzionala duten pertsonekin egin nituen eta horrek bizitza beste era batean ikusteko aukera eman zidan, adibidez aurretik baloratzen ez nituen gauzak baloratzen hasi nintzen.



Amaia: Orain dela 4 urtetik, osasun arloko ikasketak ditut. Erdi mailako ikasketak egin nituen, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta hain zuzen ere. Erdi mailako zikloa amaitutakoan, lanean hasi nintzen, aniztasun funtzionala duten pertsonekin. Lana amaitutakoan, hirugarren adineko pertsonekin hasi nintzen, orain arte. Betidanik gustatu zaizkit umeak horregatik, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa egitera animatu nintzen. Goi mailako zikloko lehenengo urtean, begirale ikastaroa egiten hasi nintzen, eta udan umeekin bizipenak eta esperientzia bizi izan nituen eta hor konturatu nintzen nire

bokazioa hau zela. Aisialdi elkarte batean sartu nintzen, "Katalamixon" izenekoan, Abadiñon kokatuta dago eta asteburu gehienetan irteerak edo ekintzak egiten ditugu. Honetaz gain, lehen laguntzetako titulua dut.